

Tolosako gaztetxoek mozorrotuta estreinatuko dute haur liburutegia

17.00etan hasiko da bihar festa Errotako terrazan Bertso antzerkia, jokoak eta txokolatearekin gozatu eta mailegu txartela atera ahal izango dute

Marta San Sebastián. Tolosa

Pasa den urriaren 14an ateak zabaldu bazituen ere, oraindik ez dute burutu Tolosako Errotako haur liburutegiaren inaugurazio ekitaldia. Gaztetxoak txokoko jaun eta jabe bilakatu dira jada eta arduradunek festa handi batekin estreinatuko dutela modu ofizialean erabaki dute. Bihar izango da ekitaldia: 17.00etatik aurrera haurren gozamenerako hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

Festa erabatekoa izan dadin, hurrei mozorrotuta joateko eskatu diete. "Mozorro festa izango da, eta ipuinetan bezala, hurrek gustuko duten pertsonaiaren jantziak eraman ditzaten nahi dugu", azaldu du haur liburutegiko arduradunak, Susana Larrek. Hala zioen inaugurazio festa iragartzen zuen oharra: "Ipuinetako pertsonaiak erotu egin dira, eta ihes egin dute liburutegiko liburuetatik festara joateko. Zuk ere festan parte hartu nahi baduzu, irakurri arretaz paper hau".

Tolosako haur eta gaztetxo asko agertuko direla espero dute antolatzaileek, gurasoekin batera, nahi izanez gero. Errotako haur liburutegiaren aurreko plazan burutuko da festa, eguraldi onak laguntzen badu, behintzat. Egitarauari dagokionez, lehenik bertso antzerkia izango da ikusgai, 17.00etan. 1, 2, 3 Inaxito! saioaz gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Ondoren, umeei gehien gustatzen zaien tarte iritsiko da: jolasen garaia. 18.00etatik aurrera adinen araberako taldeetan banatuko dituzte eta jokuei ekingo diete. Bost urtetik gorakoak Zer da ipuina? jokoan arituko dira, zazpikoek, aldiz, Non dago Wally? joko ezaguna landuko dute eta zaharragoek Zu ere liburuzain! jokoan jardungo dute. Azkenik, hamaika urtetik gorakoentzat Ibili bila eta aurkitu denbora pasa prestatu dute liburutegiko arduradunek. Arra-tsalde osoa jolasean aritu ondoren, 19.30ean, txokolatea banatuko dute denentzat.

Honez gain, kaleko haur liburutegia zabalduko dute, Aranburu Jauregia eta Errota artean dagoen terrazan. Gazteenak ere liburuekiko gertu sentitu daitezen, 0 eta 4 urte bitarteko haurrentzat liburutegi txiki bat ere antolatuko dute. Gainera, horiek eta zaharragoek irakurketa sareko mailegu txartela ateratzeko aukera izango dute. Biharko inaugurazio festa egunean, 19.30ean, izango dute txartela erabiltzeko eta liburutegiko zerbitzuak ezagutzeko aukera.

Harrera Itzela

Errotako haur liburutegiak izan duen harrera izugarria izan da arduradunen esanetan. Liburutegi zaharrear 728 bideo eta 814 liburu hartzen zituzten erabiltzaileek batezbesteko hilean eta berrian, aldiz, 1.623 bideo eta 1.607 liburu mailegatzen dituzte. Haur liburutegi berria zabaltzen dutenetik, lehen hiru hilabeteotan 10.000 bisita jaso ditu, izan ere, bisita kontatzaile automatikoa du egoitzak.